

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Bergaran

Koldo Pereira, Bergarako Kultura zinegotzia: "Udalak ezin lezake plan bat asmatu eta abiarazi gizarteari beste aukerarik eman gabe"



Zaldiero

Aurreko aleetan ageri izan denez, hainbat dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen ari diren udalak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin. Udalak, udal mailako plan nagusia osatzen ari dira, neurriak eta ekintzak epe zehatzetara ekarrita. Bergara dugu adibide. Bertan hartu gaituzte Kultura zinegotzi Koldo Pereirak eta Euskara teknikari Estepan Plazaolak.

Berripapera: Zein da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak Bergaran izango duen baliorik handiena?

Estepan Plazaola: Orain baino lehen ere Bergara pauso trinkoak eman ditu euskararen nor-

malizazioaren bidean. Duela hamar urte baino gehiago hitzarmenak egin genituen gazte elkarteekin, merkatariekin etab. Dena dela, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak batasuna emango dio orain arte egin den hizkuntza politikari, hau da, zatika egin den lanari osotasuna. Udalaren aldetik ere planteamendu osokoagoa ekarriko du eta herriz gaindiko ikuspegia ere bai, koordinazioa erraztu eta guk herri-

mailan gainditu ez ditugun oztopoak gainditzeko erraztasunak.

B.: Eta zein dituzue EBPN-k Bergaran dituen indargune eta ahuldadeak?

E.P.: Zenbait sektoretan urrats nabarmenak egin ditugu. Udaletxean bertan, esaterako, pauso handia egin dugu aurrera. Arestian esan dudanez, arlo gehienetan –gazteria, kultura, aisialdia... –, jardun dugu normalizazio lanean eta sentiberatasunik badago. Aldiz, industriari dagokionez, apenas egin den ezer. Egoerak erakusten digu ez dela aurreratu. Enpresa plan batzuk izan ezik, gutxi. Dena dela, udalarekiko harremanak euskaraz bideratu nahi dituzten

elkarte, entitate eta enpresen errolda egin dugu berriki eta kopuru polita osatu dugu, erdi mailako hainbat enpresa lotu zaizkio asmoari.

B.: Zertan da, zehatz, EBPN Bergaran? Zein fasetan, alegia?

E.P.: Lehen zirriborroa egin berri da eta, oraintxe, azken zirriborroa lantzen ari gara, batzuekin eta besteekin biltzen. Harrera ona izan dugu, are gehiago, euskalgintzan ari direnek zenbait lan eta ardura euren gain uzteko eskatu digute.

Koldo Pereira: Ekarpen interesgarriak egin dizkigute. Bestalde, Euskara Batzordea entitate irekia da eta, beraz, prest da ideiak, laguntzaileak eta antzekoak hartzeko. Plana hainbat esparrutara zabaltzeko ildoak agindu ditugu, nahiko ildo zabalak, eta orain esparruz esparru jardun behar dugu, ildoak zehazten. Udalak ezin lezake plan bat asmatu eta abiarazi gizarteari beste aukerarik eman gabe. Ez genuke burutuko. Enpresari dagokionez, euskaltegiarekin elkarlanean ari gara lan-mundua euskalduntzeko. Bergarakoak eta Bergarakoak ez direnak ere ari dira bertan.

B.: Eta noiz izango da prest Bergarako EBPN, hau da, helburuak, neurriak eta ekintzak finkaturik eta lehenengo urteko plana zehazturik?

I.P.: Egutegi bat ezarri genuen baina atzeratu egin gara. Nik uste dut martxorako izango dugula, horri buruz ari gara lanean, eta nahiko nuke, baina ezin datarik agindu.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Gaztelania

Izen-deiturak:

 Helbidea:

 Herria:
 kodea:Lurraldeak:.....
 Tel.:
 e-posta:

Unai Elorriaga, Espainiako Narratiba saria

“Nik broma moduan hartzen dut literatura, broma serio moduan”

Espainiako Narratiba saria irabazi du Unai Elorriagak, ez da baitezpadakoa. Irabazleen zerrendan izen handiak ageri dira: Gonzalo Torrente Ballester, Miguel Delibes, Camilo Jose Cela, Alfredo Bryce Echenique, Bernardo Atxaga... Hain segur, hamahiru urte dira Atxagaren *Obabakoak* lanak saria irabazi zuela. Haren bidean, urratsa egin du Unai Elorriagaren *SPrako tranbia* narrazioak, erretiraturik bizi den agurearen istorioa abiapuntu harturik.

Berripapera: Lehen narrazio lana zenuen *SPrako tranbia*. Askoren arreta irabazi zuen liburuak. Espainiako Narratiba saria jasoko zuenik ez zuen askorik usteko, hala ere. Zuk zeuk, nola jaso zenuen saria?

Unai Elorriaga: Finalista nengoela jakin nuenean, ilusioa izan zen batez ere, inondik inora beteko ez zen ilusioa, jakina, argi bainekien ez nuela saririk irabaziko. Irabazi nuenean, ostera, ez sinestea izan zen lehenengo pausoa eta oraindik ez dut hortik aurrera egin.

B.: Saria baino askoz lehenago ere bikain idazten duten gazteen artean jarri zintuen Sarrionandiak, eta ira-



Zaldiero

kurleak ere oso ontzat eman zuen zure liburua. "Ahotsa"-ren jabe ei zinen...

U.E.: Halako gauzak, baina, tentuz hartu behar izaten dira. Ezin da pentsatu munduko idazlerik onena zarela, edo lan egin barik, edozer idatzita, testu ona izango dela. Badakit, hortaz, hemendik aurrera ere, lanik ez badago,

saiatzen ez banaiz, ez dela emaitza onik egongo.

B.: Hala ere, ez zarela idazle adierazi izan duzu saria jaso eta gero ere... Zer esan nahi izan duzu?

U.E.: Errespetu handia eduki behar zaiola horri, kontrakoa ere maiz ikusi izan dudalako; hau da, txarto idatzi eta idazle dela esan duen asko. Nik broma moduan hartzen dut literatura, broma serio moduan.

B.: Zein dituzu sorkuntza lanaren abiapuntu eta ezaugarriak?

U.E.: Gozamina. Idazten gozatzea. Gustatzen zaidanari buruz idazten dut. Eta erantzun inozoa dirudi beharbada, baina horren azpian gauza asko dago.

B.: Atxagaren ondoren, saria irabazi duen bigarren euskalduna zaitugu. Adibidetzat har ote zenezake sariaz gero Bernardok egin duen idazle ibilbidea?

U.E.: Bernardo Atxagak egin duenaren erdiaren erdiaren laurdena egiten badut, pozik.



Unai Elorriaga, Espainiako Narratiba saria



PERTSONAJEA: Jose Maria Jimeno Jurioren heriotza

LABURRAK: Bilera Helsinkin

Expolingua Berlingen, mintegia Udinen (Italia)

Literatura Unibertsala bildumak 100 titulu



Xagux@rrak, Donatoren tertulia, hirugarren ikasturtean

Euskadi Literatura sarien banaketa



EBPNren aplikazioa Bergaran



Zaldiero

laburrak

Bilera Helsinkin

Hizkuntza gutxituei buruzko bilerak egin dira berriki hainbat lekutan. Aurreko alean iragarri genuenez, Europako Batasunaren baitan hizkuntza gutxituak garatzeko erakunde bateratua sortzea aztertu zuten urrian Helsinkiko Parlamentuan. Bertan izan ziren Miren Azkarate Kultura sailburua eta Patxi Goenaga, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, euskara biziberritzeko Euskal Herrian indarrean dagoen hizkuntza politikaren berri emanez.

Expolinguua Berlinen, mintegia Udinen (Italia)



Helsinkiko bileraren ondoren, hurrena, azaroaren 8 eta 9an, nazioarteko mintegia egin zen Udinen (Italia), hizkuntzaren, identitatearen eta ekonomia-aren artean dauden lotura bihurri buruz gogoeta egiteko. Bertan, hizkuntza gutxituak eta identitateak baliabide

ekonomiko eta garapenerako lagungarri egiteko bidez gogoeta egin zen.

Hizkuntza gutxituek bere burua erakusteko beste leiho bat ere izan zuten sasoi berean. Hain zuzen, azaroaren 15etik 17ra bitartean Expolinguua azoka egin baitzen Berlinen.

2001. urtean Europako Hizkuntzen Urtea ospatu zenetik, Europako Batasunean hizkuntza gutxituak dituzten herri eta eskualdeetako agentzietako eta gobernuetako ordezkariak elkarlana are gehiago ari dira bultzatzen.

Literatura Unibertsala bildumak 100 titulu

100. titulua argitaratu berri da *Literatura Unibertsala* bildumaren barruan, William Shakespeareren *Hamlet*, alegia, Juan Garziak euskaraturik. Horren kariatara, jai handia antolatatu du bildumaren arduradun EIZIE elkarteak, Ibaizabal argitaletxearen eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesean. Ibaizabal argitaletxeak argitaratu duen bildumak 100 tituluak izatera iritsita ere, jakina da beste 50 lan ere kaleartzeko hitzarmena sinatu dutela *Literatura Unibertsala* proiektuaren eragileek.



pertsonajea

Jose Maria Jimeno Jurioren heriotza



Jose Maria Jimeno Jurio urriaren 3an hil zen Iruñean. Historialari nafarrak lan gaitza egin zuen Euskal Herriaren historia aztertzen, ikertzen eta jakinarazten eta haren heriotzak hutsune handia utzi du.

Jose Maria Jimeno Jurio (Artaxoa, 1927) labo- rari familia baten baitan sortua, maisu izan zen eta lan horretan jardun zuen Noainen eta Lergan. Ondoren, apaiz egin eta Zangozan, Berai- nen eta beste hainbat herritan egon zen. Orduantxe hasi zen lehen ikerketak egiten. Harrezkero, historia, etnografia, toponimia, euskara... alorrak landu zituen eta Nafarroaren iragana ikertu duen egile emankorrenetakoa izan zen. *Príncipe de Viana, Fontes Linguae Vasconum, Cuadernos de Etnología y Etnografía de*

Navarra eta beste hainbat aldizkaritan agertu zituen idazlanak. Liburuaren artean, berriaz, honakoak ageri dira, besteak beste: *Navarra nunca dijo no al estatuto, Documentos medievales artajoneses, ¿Dónde fue la batalla de Roncesvalles?, Historia de Pamplona. Síntesis de una evolución...*

Euskara eta toponimia

Jose Maria Jimeno Jurio toponimiaren eta hizkuntzaren historiaren alorrean nabarmendu zen, batik bat. Toponimiari dagokionez, haren ekarpena guztiz garrantzizkoa izan zen. Bi lan izan ziren mugarri: batetik, Euskaltzaindiarentzat zuzenduriko *Onomasticon Vasconiae* eta, bestetik, berriaz, Nafarroako Gobernuaren eskariz Nafarroako toponimia biltzen duen bilduma handia.

Bestalde, 1997an, *Navarra: Historia del euskera* izeneko lana plazaratu zuen Jimeno Juriok, antzinatek gaur arte euskaraz non egin den zehazten duen liburua eta askoren aurreiritziak hankazgoratu zituen.

Egindako lanaren ordainetan, Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzak, Euskal Dantzarien Biltzar- rarak, Sabino Arana Kultur Elkargoak eta herritarrek, orobat, behin baino gehiagotan omendu zuten Jose Maria Jimeno Jurio, gizon apala, guztiz maitatua.



